



Ajangizko Udala

BASO APROBETXAMENDUAK ATERATZEKO ETA UDAL TITULARTASUNEN BASO BIDEEN ERABILERA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA FISKALA

1. Artikulua.- Oinarri eta Izaera.

Ordenantza hau Toki Korporaziotako Zerbitzuak arautzen dituen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuko 1 eta hurrengo artikuluek, Toki Entitatetako Ondasunak arautzen dituen ekainaren 13ko 1372/1986 Erret Dekretuko 77. artikulua eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22 eta 25 artikuluek arautzen dutena kontutan hartuta burutu da, eta horren arabera, Ordenantzak udal bideak babestu eta mantentzeko asmotan, hauen erabilera eta probetxamendua arautzen du.

2. Artikulua.- Helburua.

Ordenantza honen helburua, udal jabariko baso bideen erabilera arautzea da, motordun ibilgailuak natura ingurumenera heltzea, natura ondasunen mantenua bermatzea eta baso bideen erabilera, jabetza publiko zein pribatua errespetatuz eta bereziki egur eta peiak ateratzeko erabilera arautuz.

3. Artikulua.- Erabilera.

Udal jabariko baso bideen erabilera honako arau hauek zuzenduko dute:

1. Mendi erabiltzaileek baso bideak kirolerako, ehizerako, arrantzarako, baso fruitu eta landarak jasotzeko eta bestelako ekintzetarako erabili ditzakete, indarreango araudia bete eta araudi berezietara lotuta ez dauden ekintzen ohiko baldintzak errespetatuz.
2. Landabideetatik egiten diren ibilbideak aurretik jarritako bidetatik burutuko dira, berlandaketarako itxitako eremuak errespetatuz eta baso abere eta landareen mantenu eta zabalkuntzan eraginik sortu gabe.
3. Baso operazioak edota bestelako eraikuntza ekintzek baso bideetatik motordun ibilgailuak ibiltzea eskatzen dutenean, erabilera hau Udal Ordenantza honetan jasotzen diren baldintzak betez egingo da. Erabilera hori udal Korporazioarekin hitzarmendutako jabetza pribatuko baso bideetan burutzen denean, dagokion araudian jasotakoa eta hitzarmenean jasotako arauak aplikatuko dira.
4. Lehenengo puntuan aipatu diren natura ingurumenera urbiltzen diren motordun ibilgailuek, ibilgailu eta gidariari dagokion identifikazio araudia bete beharko dute, ondoren aipatzen diren erabilera baldintzak betetzeaz gain:
 - 4.1. Zirkulazioa 3,5 metroko zabalera baino gehiagoko ibilbide guztietan onartzen da, beti ere era bateko zein besteko zoruketa egina duenean eta bereziki debekatuta ez dagoenean.
 - 4.2. Zura ateratzeko bidetan, suebakietan, abere bideetan, mendi ibilbidetan, erreka ubidetan eta landetan zehar bideetatik kanpo debekatuta dago motordun ibilgailuen zirkulazioa, ikuskaritza eta zaintzarako ibilgailuak, suhiltzaile zerbitzuak eta zuta ateratzeko bideetan baso produktuak atera eta mendi zerbitzuko ibilgailuak salbuetsiz.



Ajangizko Udala

- 4.3. Baimendutako bideetan zehar zirkulazioa, geheienez orduko 25 Km. izango da, ibilgailu ofizialen aurrerapenarekin konparatuz dagozkion zigorren justifikazioari dagokionez.
- 4.4. Udala, bere kabuz edo bestelako eskudun administrazioen eskariz, baldintza bereziak edo aldi baterako baldintzak jarri ditzake, interesdun naturguneak basbestu eta suteak eta zoruan sortu daitezkeen kalteak ekiditzeko.
- 4.5. Finka pribatuen barruan erabat sartuta dauden bideetan ibiltzeko debekuak eta mugak finka horien titularrek ezarriko dituzte, aplikagarriak diren legeekin bat etorrituz.
- 4.6. Aipatutako bideetan ezin izango da ibili 30 toneladatik gorako karga duen kamioirik. Udalaren eskumena da, baso bide bakoitzerako geheinezko karga zein den ezartzea.
- 4.7. Bide eta gune publiketan ezin izango da ezein kasutan materialen zamaketa lanik egin, baldin eta udalak baimena espreski ematen ez badu, interesdunak baimena eskatuta.

Udal titulartasuneko baso bideetan egindako lege hauste administratiboak, Udal Ordenantzen Legean ezarritakoaren arabera zigortuko da.

4. Artikulua.- Udal bideen aprobetxamenduak.

Konstituzioaren 133.2 eta 142 artikuluek eta Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106 artikuluek emandako eskumenak erabilita, Toki Ogasunak arautzen dituzten abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 15 eta 19 artikuluekin eta ekainaren 30eko 5/1989 Foru Arauaren 15 eta 18 artikuluekin bat etorrituz, Udal honek bere bideak aprobetxatu eta erabiltzeagatiko tasa ezartzen du. Tasa hori, gainera, zerga-ordenantza honen arabera arautuko da, aipatu 39/1988 Legearen 58 artikuluan ezarritakoarekin jarraituz.

5. Artikulua.- Oinarri ezargarria.

Tasaren zerga egitatea, Udalaren bideen aprobetxamendu berezia da, baso produktua ustiatzeko edo udalaren bideetan kalteren bat eragin dezakeen beste edozein jardueratarako. Oinarri ezargarritzat, egur ustiatzeetatik atera daitezkeen egurraren bolumena hartuko da.

6. Artikulua.- Ordaintzera behartuak.

Egurra ateratzeko Udal baso bideak erabiltzearen, kanona eta bermea jarri behar dira, bideak erabiltzean sortu litezkeen kalteak ordaintzeko. Tasa eta berme hori jartzearen erantzule, egurraren jabea eta salmentaren bultzatzailea dira, eta sorospenez maderista, baso aprobetxamenduen kasuetan; gainontzeko erabileretan, garraiolaria izango da erantzule.

Kontrakorik ezartzen duen hitzarmenik ez balego, kanonaren ordainketa jabearen kontura izango da, eta bermearena eroslearen edo garraiolariaren kontura.

Dena dela, bai jabeak zein erosleak eta garraiolariak izango dute sorospenez, bermea jarri eta kanona ordaintzeko erantzunkizuna.

7. Artikulua.- Eskakizunak.

Udal nekazal bideren bat erabikili behar dutenek, egurra ateratzen hasi baino lehenago, udalari baiema eskatu behar dioe, eskaerian honako datu hauek zehaztuz:



Ajangizko Udala

- a. Egurraren jabe, egurtzaile, akulari eta garraiolariaren izena.
- b. Mendiaren izen eta kokapena.
- c. Ibilgailuek egin beharreko bidea.
- d. Ateratze eta garraioaren hasiera eta amaiera data.
- e. Estereo edota metro kubikoak.
- f. Garaioa egingo duen ibilgailu mota, matrikula, bidai kopurua eta zama kopurua bidai bakoitzeko.
- g. Nekazaritza Sailaren mozte baimena.
- h. Egur edo beste materialik pilatuko duen ala ez eta horrela balitz, egur mota, pilaketa lekua eta bolumena.

8. Artikulua.- Kuota.

Tasa ondoren aipatzen diren tarifak aplikatzearen ondorio izango da:

- 0,26 €/ estereo
- 0,40 €/ m³

9. Artikulua.- Bermea.

Alizko kalteen aurrean erantzuteko babes modura, nahita nahiezko izango da aurretiaz berme bat jartzea, bere zenbatekoa, eranskinean ezartzen dena izango delarik.

Bermea dirutan, zigilatutako taloiz edo banketxearen abalez ordaindu ahal izango da.

Bidearen egoera zein den aztertu eta Udalak bere onespena eman ondoren, interesdunak bermea itzul dakion eskatuko eta itzuli egingo zaio.

10. Artikulua.- Salbuespenak.

Udal baso bideetatik ibili behar duten auzokideek ez dute kanonik ez bermerik jarri behar izango beti ere egur garraioa baserriaren beharrezanetarako edo abeltzaintzarako denean.

Halaber, eta arestian aipatgutakoaren arabera, ateratako egurraren bolumena 35 estereo edo 15 m³tara heltzen ez denean, ez da bermerik ez kanonik jarri behar izango.

11. Artikulua. Erantzunkizuna.

Bideen erabileraren onuradunak arduratuko dira bideak eta berauen instalazio publikoak baimena eman aurretiko egoeran mantentzeaz. Erantzunkizun hau egoera honetan ezarritakoaren arabera eskatuko zaie, baina Justizia Auzitegietara jotzea baztertu gabe.

Horretarako aurretiaz eta interesdunak hala eskatuta, baso bideen egoera gainbegiratuko da.

Bideetan kalterik ikusiko balitz, Udal zein Bizkaiko Foru Aldundiko teknikariak baloratuko ditu kalte horiek. Jarritako bermea kalteak ordaintzeko nahikoa ez baldin bada, erosleari edo subsidiarioki maderistari diferentzia ordain dezala eskatuko zaio.

Bermea itzultzeko prozedurak gehienez hiru hilabete iraungo du itzulketa hori eskatzen den datatik aurrera eta beti ere bidearen egoera ikuskatu ondoren.



Ajangizko Udala

12. Artikulua.- Erabilpen mugatua.

Pisten erabilera urteko hilabete guztietan baimenduko da, Udalak baldintza atmosferikoak medio baimena baldintzatzen ez duen bitartean.

13. Artikulua.- Zigorrak.

Burututako legeauzteengatik jarri beharreko zigorrak Toki Erregimena arautzen duen Legearen arabera egingo da.

Zigorra jartzeak ez du tasa ordaindu beharra ezeztatzen ezta dagokion bermea jarri beharra ere.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere eranskina 2003ko azaroaren 14an onartu zen behin betikoz, eta 2004ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean indarrean jarraituz.

ERANSKINA

M3	€	ESTEREO	€
15 m ³ taraino	Salbuetsita	35 estereoraino	Salbuetsita
15-44 m ³	150,25	35-99 est.	150,25
45-89 m ³	300,50	100-199 est.	300,50
90-134 m ³	450,75	200-299 est.	450,75
135-199 m ³	692	300-399 est.	692
200-299 m ³	1.052	400-499 est.	902
300-399 m ³	1.352	500-599 est.	1.082
400-499 m ³	1.653	600-699 est.	1.352
500-599 m ³	2.104	700-799 est.	1.503
600-699 m ³	2.404	800-899 est.	1.803
700-799 m ³	3.005	900-999 est.	2.104
800-899 m ³	3.456	1000-1199 est.	2.404
900-999 m ³	3.907	1200-1399 est.	2.704
1000-1199 m ³	4.508	1400-1599 est.	3.005
1200-1399 m ³	5.108	1600-1799 est.	3.456
1400-1599 m ³	5.710	1800-1999 est.	3.907
1600-1799 m ³	6.311	2000-2199 est.	4.508
1800-1999 m ³	7.212	2200-2499 est.	5.109
2000 m ³ <	8.414	2500 est. <	6.010

Ordenantza hau, Muxika eta Mendatako egurra atera eta Ajangizko bideak erabiltzen dituztenei ere izango zaie aplikagarri.
